

**4/2025 TXOSTENA, OTSAILAREN 18KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN A HOLKU-  
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: ONKOLOGIKOA OSASUN-ZENTROA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ADMINISTRAZIO OROKORREAN TITULARTASUN PUBLIKOKO BALIABIDE GISA  
INTEGRATZEKO BALDINTZAK EZARTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA.****I.- AURREKARIAK.**

2025eko urtarrilaren 22an, Osasun Saileko Aholkularitza Juridikoak eskaera bat egin zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek txostena egin zezan, Onkologikoa osasun-zentroa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean titulartasun publikoko baliabide gisa integratzeko baldintzak ezartzen dituen dekretu-proiektuari buruz.

Zehazki, aipatutako proiektuaren 4. artikuluari buruzko txostena eskatzen da, hirugarrenetik harreman juridikoei buruzkoa.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG\_DEC\_3010/24\_09), txosten honetarako interesgarriak diren dokumentu hauek daude:

1. Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren memoria teknikoa.
2. Osasuneko sailburuaren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren baterako agindua, dekretua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.
3. Agindu bateratua, Osasuneko sailburuarena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena eta Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, dekretu-proiektuari aldeztu aurreko onarpena ematen diona.
4. Dekretu-proiektuaren testua, inbentarioari, langileei eta kontratuei buruzko hiru eranskinekin batera.
5. Sail sustatzaileko Aholkularitza Juridikoak emandako txosten juridikoa.
6. Emakunderen txostena
7. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena



8. Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren 145/2024 txostena.  
9. Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostena.

## II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak ematen du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua c) letran ezarritakoa betez. Batzordeari dagokio: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera hori kontratazioa kudeatzeko mandatua duten Eusko Jaurlaritzako zuzendariak edo sektore publikoko gainerako erakundeetako legezko ordezkariak egin behar dute, idatziz.

Bestalde, 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Batzorde Iraunkorrari dagokio egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari buruzko Batzordearen aholkularitza-eginkizuna.

Txostenaren irismenari dagokionez, sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten alderdietara mugatzen da; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honen eskumena kontratazio publikoaren berezko gaiei soilik dagokie.

## III.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Lehenik eta behin, adierazi behar da Onkologikoa Osakidetzan integratzea babesten duen esparru juridikoa honako hauek osatzen dutela:

1- Osasun Sailaren eta Onkologikoa Fundazioaren arteko atxikimendu-hitzarmena, osasun-zerbitzuak ematekoa, 2018ko abenduaren 27koa. Horren bidez, zentro pribatuaren eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren osasun-zerbitzuen arteko funtzionamendu integratua lortu zen, Autonomia Erkidegoko osasun-administrazioaren plangintza-erabakiak betez. Atxikimendu-hitzarmenaren azalpen-zatian aurreikusi zen Fundazioa etorkizunean desegingo zela, Fundazioak etorkizunean fundazioaren helburua betetzen jarraitu ezin izango zuela aipatu baitzen, eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 40. artikulua arabera, fundazioa azkentzea eragingo zuen.



2- Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen hamalagarren xedapen gehigarriak oinarriak ezartzen ditu "Onkologikoa osasun-zentroa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoan integratzeko", eduki honekin:

*1. Baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Onkologikoa osasun-zentroa titulartasun publikoko baliabide gisa integra dezan, honako hauen mende: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 21. artikuluan ezarritako araubide juridikoa, bertan aipatzen den araudia, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legea eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.*

*2. Integrazio horretarako baldintzak zehaztuko dira dekretu bidez, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoari atxikiko zaizkio erakunde publiko horrek betetzen dituen eginkizunei lotutako edo haietatik eratorritako ondasunak, eskubideak eta betebeharrak, eta onartu egingo da Onkologikoa Fundazioaren giza baliabideen titulartasunaren ondorengotza, integratu arte finkatu eta eskuratu diren lan-eskubide eta -betebeharrei dagokienez.*

*3. Integrazio hori amaitzen den bitartean, indarrean jarraituko du Osasun Sailak eta Onkologikoa Fundazioak osasun-zerbitzuak emateko 2018ko abenduaren 27an sinatutako atxikimendu-hitzarmenak.*

3- Lankidetzeta-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eta Onkologikoa Fundazioaren artekoa, 2024ko apirilaren 26koa. Hitzarmen horretan, integraziorako eta Osakidetzari atxikitzeko baldintzak ezarri ziren, hau da, alderdi sinatzaileek osasun-zentroaren integrazio-prozesuan dituzten eskubideak eta betebeharrak.

Era berean, txosten honen xede den dekretu-proiektuak zioen azalpena, sei artikulua, bi xedapen gehigarri eta azken xedapen bat ditu.

lido horretan, dekretu-proiektuak abenduaren 22ko 21/2023 Legearen hamalagarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatuan xedatutakoa betetzen du. Era berean, 2024ko apirilaren 26ko lankidetzeta-hitzarmenaren hirugarren klausulako A paragrafoko c) azpiapartatuan jasotakoa zehazten da. Horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak konpromisoa hartu zuen "aktibo, pasibo eta harreman juridiko horien titulartasuna eskuratu ahal izateko, bai eta



batzuen eta besteen subrogazioa egin ahal izateko ere, behar besteko aurrerapenarekin abian jarriz arau horiek onartzeko komenigarriak diren mekanismoak".

Txosten honen ardatza proiektuaren 4. artikulua izango da, hirugarrenetik harreman juridikoari buruzkoa. Honela dio, hitzez hitz:

*"III. eranskinean zerrendatzen diren hirugarrenetik harreman juridikoen titulartasunaren ondorengotza onartzen da, eta, ondorioz, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari atxikitzen zaizkio aurreko titularraren eskubideak eta betebeharrak".*

Horri dagokionez, aipatu behar da proiektuak integrazioa planteatzen duela, aktibo, pasibo eta harreman juridiko guztiak (lan-arlokoak barne) eskualdatuta, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra horietan subrogatuko da, oinordetza unibertsalaren bitartez. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenak beteko lirateke, azkentzen den fundazio baten ondasun eta eskubideak interes orokorreko helburuak dituen erakunde publiko batera bideratzeari dagokionez.

Onkologikoa osasun-zentroko aktibo, pasibo eta harreman juridiko guztien ondorengotza unibertsala Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren alde aurreikusten zuen erregulazio espezifikorik ez zegoenez, beharrezkoa zen zegokion lege-babesa izatea. Babes hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen hamalagarren xedapen gehigarriaren bidez eman da.

Hamalagarren xedapen gehigarri horren lehen apartatua ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra baimena ematen zaio Onkologikoa osasun-zentroa titulartasun publikoko baliabide gisa integratzeko, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 21. artikuluan ezarritako araubide juridikoaren eta bertan aipatzen den araudiaren, Euskal Sektorre Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren mende.

Dekretu-proiektuaren 4. artikulua ezartzen du onartzen dela dokumentuko III. eranskinean zehazten diren hirugarrenetik harreman juridikoen titulartasunaren ondorengotza. Ondorioz, aurreko titularraren (Onkologikoa Fundazioa) eskubideak eta betebeharrak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari atxikitzen zaizkio. Horrek esan nahi du Osakidetza bere gain hartuko dituela Fundazioak alde aurretik hirugarrenekin ezarritako kontratuak eta konpromisoak, kontratu-harremanen jarraitutasuna eta kontratu horietatik



eratorritako betebeharrak betetzea bermatuz. Era berean, kontuan hartu behar da jatorrizko kontratuetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak errespetatu beharko direla.

Onkologikoa osasun-zentroarekin lotutako kontratu subrogagarriak dekretu-proiektuaren III. eranskinean daude, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak hartuko ditu bere gain, Onkologikoa osasun-zentroa integrazeko prozesuaren zati gisa.

Aurreko guztiari dagokionez, proiektuaren artikuluen idazketak bete egiten ditu SPKLko kontratazioari buruzko manuak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak ezarritakoa ere.

Azaldutako guztiagatik, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Onkologikoa osasun-zentroa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean titulartasun publikoko baliabide gisa integrazeko baldintzak ezartzen dituen dekretu-proiektuari, haren edukia txosten honetako jarraibide eta gomendioetara egokitu ondoren.